

**BIDEZIDOR KIROLEKO
ARGAZKIAK ETA
KRONIKATXOAK 4**

Anoeta-Hernalde-Alkiza-Anoeta (2018-01-12)

<p>Alkizarako malda honetan astindu behar hauspoak, mendi artean (behe) lainoa paisaiak eder askoak. Bat, bi, hiru, lau, ... zazpi baziren muino gainean astoak, pentsatu zuten hamasei hauek ote gure antzekoak?</p>	<p>Baso ederrak, zoragarriak baditu Euskal Herriak, Alkiza honek aurrean ditu kolore ikusgarriak. Ibiltariok ase dizkigu bakearen egarriak, paisaia hauek gaixoarentzat beti kontsolagarriak.</p>	<p>Erreka bizi zaratatsuak utzi ditu euriteak, aldi berean zuri-zuriak goialdeak elurteak. Ikusten diren laino ederrak apainduz beheko tarreak, ezin lituzke inoiz margotu ezta Van Gogh pintoreak.</p>
---	--	--

(2015-11-27)

(2016-11-18)

(2018-01-12)



Alkizako begiratokian ibiltariok paisaiaz gozaten



Alkizako begiratokian, laino margogaitzen jolasak behatzen



Errepidea utzi eta Alkizara doan bidezidor aldapatsuan gora goaz ibiltariok

Donostia-Lasarte-Donostia (2018-01-19)



Ibiltariak Zorroagako bidean, ibilbideari hasiera emanez



Oriamendiko inguruetan, euripean



Zorroagako igoeran, ibiltariak euriari aurre egiteko prest eta euripean



**Gure taldeko jende askotxok
jokatzen du ausardiaz,
aterki eta zirak harturik
ez da beldurtzen euriaz.
Goizean irten gogotsu eta
gozatzen ibilaldiaz,
une gozoaz eta ederraz
herriaz eta mendiaz.**

Irun-Bera (2018-01-26)

<p>Berrogeita hiru gehi hamar ginen ibilbide erosoan, aitzindariak jarria zuten askartasuna pausoan. Halakoetan izaten dira hainbeste gauza gogoan, baina azkenik aurkitzen dugu zoriona sagardoan.</p>	<p>Bidasoa da “”via ad Oiasso” Bera ote da “alboan”, baskoiak eta erromatarrak biziko ziren ondoan. Erreka hauek urez gainezka iraun dute luzaroan, urre zuriak balioko du gure biloben aroan!</p>	<p>Neurrigabeko zaletasunak ibiltzea garamatza, eta gaurkoan gainean dugu sekulako euri-jasa. Babeslekua bila gabiltza hortxe dago Endarlatsa, ibiltariak pasa behar du ordu erdi nahiko latza.</p>
--	---	--

(2015-04-24)

(2018-01-26)

(2018-01-26)



Errekak gainezka eta Bidasoa ibaia ongi horniturik



Santiagotarrak taldeko piraguisten edo kanoazaleen entrenamendu eremua



**Pio baroja hemen bizi zen
honi zion maitasuna,
harritzekoa ez da guretzat
lekua baita kutuna.
Tortilla goxo jan bitartean
zerutik datorkiguna!
galdera bada non ari garen
taberna da “Euskalduna”.**

Orio-Aia-Orio (2018-02-09)



Andatzan edo Aiako San Pedro auzoan, trikikitilarien oroigarria atzean dugula



Aiako Arruti jatetxean, tortilla goxo askoa dastatu ondoren

**Nola beldurtzen den jende asko
bere oheko beroan,
leihora irten eta ikustean
termometroa zeroan.
Izotza bada, erne ibili
arreta jarri pausoa!
alferrak ez du inoiz sumatzen
edertasuna basoan.**

**rnio zuri-zuriz jantzita
andregai baten gisara,
ibiltariok hemen gabiltza
ederra baita bailara.
Giro egoki eta aproposa
hobea oso zaila da,
gure urdaila esker oneko
tortilla goxoia janda.**

**Zazpi besterik ez ginen izan
prest bustitzeko arropa
Aia gainean egin genuen
sagardoarekin topa.**

**Lau gizon eta hiru andreek
lokatzez beterik bota,
gauza guztien gainetik dago
irabaztea borroka.**

(2015-05-15)

Igeldo-Arratzain-Usurbil (2018-02-16)



Taldearen erdia Usurbilen, Zumetaren lanaren aurrean



Taldearen bigarren erdia Zumetaren lanaren aurrean



Hemen, ordea, talde osoa

**Udaberriko egun ederrak
eman digu bere maila,
ibiltarion irribarrea
lortzea ez baita zaila.
Hogeita hamalau gizon-andere
handia da giza zaila,
leku politaz gozatu eta
iritsi da Usurbila.**

(2016-04-22)

**Ostiral honek itxuraz badu
udaberriko tankera,
ibiltariak ugaldu dira
perretxikoen antzera.
Ibilbidea nolakoa da?
batek egin du galdera,
egitarauan jarrita duzu
malda gora eta behera!**

(2018-02-16)

Tolosa-Aldaba Txiki-Langaurre-Alegia (2018-02-23)



Alegiako zubi zaharrear talde osoa

**Hiri burutik ez oso urrun
soro-basoak galantak
bista ederrak eta bakea
eskaintzen ditu Aldabak.
Langaurre eta Aldaba Txiki
biak alderdi apartak,
hotzak ez digu eragotziko
lokaztea bertan botak.**




**Aldaba Txikiko bidean, kolore aniztun tropela banan-banan doalaLainoak, hondo-hondoan, ez digu
Txindoki ikusten
Madariaga-Otarre-Madariaga (2018-03-02)**



Otarre mendiaren gailurrean, haize minaren babesean

**Eguraldiak badu guregan
sekulako eragina,
Madariagan ona da baina
-Otarren bai haize mina!
Egurgileek utzi digute
abarrez bete izkina,
lokaztu dute bide osoa
igarotzeko zikina.**

**Otarre honek eskaintzen ditu
paisaia ikusgarriak,
Anboto, Erlo eta aizkorri
bista aurrean jarriak.
Isolaturik dauden lekuak
guretzako opariak,
gutako gutxik ahaztuko ditu
une gogoangarriak.**



--Paisaia aparta Otarreko bidean



Otarre jatekxearen ondoan dagoen bidegurutzean



Hondo-hondoan Atxuri mendia

Ordizia-Lazkaomendi-Ataun-Lazkao-Beasain (2018-03-09)

**Txiki handia izan genuen
euskal munduan eredu,
Abalineko bertsolaria
ahaztezina baitugu.
Euri honekin Agauntza ibaia
gainezka egitear dugu,
tortilla eta ogi goxoaz
ez ote gara gizendu?**

**Begi aurrean ikus daiteke
argi Txindoki mendia,
eta ondoan Ramonen ustez
bazegoen sumendia.
Goiko aldean ez ote dago
krater baten irudia?
baina hementxe tortilla jaten
lasai Koro Garmendia.**

(2016-04-08)



(2018-03-09)



-Lasaitasun ederrean hegazti, zaldi eta ardi hauek



Taldea Agauntza ibaiaren zubi batean, Ataunen



Ataungo plaza batean partaide guztiak, argazkilaria izan ezik



Joxe Migel Iztueta (Lazkao Txiki)

Bere bertso pare bat

Poza eta tristurari

**Ez eduki, ez, ni beti pozik
egoten naizen usterik,
ez bai dadukat andregairikan
ez bai daukat emazterik.
Hamaika aldiz egon izan naiz
barrua penaz beterik,
baina ni poza(k) kantatutzen det
tristura bertan gorderik.**

Ispiluari

**Aizak nik hiri bota behar dit
bertso koxkor bat edo bi,
behingoan jarri geran ezkerro
biok arpegiz arpegi.
Niri begira hortik daduzkat
alperrikako bi begi,
hik noski ni ez nauk ikusiko
baina nik ikusten haut hi.**

Billabona-Zizurkil-Aduna-Andoain (Billabona) (2018-03-16)



Adunako sarreran dagoen begiratokia



Adunan, udaletxearen aurrean



**Errekatxoan ur txit gardena
eta garbi iturrian,
ez al dituzu behiak ikusten
beti lasai belardian?
Oinak gatibu bihotza aske
sentitzen gara mendian,
ibiltariak aurpegi alai
izaten du izadian.**

Zumaia-Elorriaga-Behatokia-Telmo Deum-Zumaia (2018-03-23)



Ibilaldiko paisaia, une batzuetan lanbrotsua eta bestetan irekia



Elorriaga auzoko ingurunea eta Telmo Deumerantz jaisten



Elorriagatik itsasaldera jaitsi eta, behatokian, Ramonen eta Juan Inazioren azalpenak entzun ondoren

**Deba, Mutriku eta Zumaia
ziren txit aberastuko,
milioika urtez diraute flyshak
honi ezin egin uko.
Aberasgarri da azalpena
nola ez dut sinestuko!
dinosaurio garai haietan
Ramon izanik lekuko.**

**Zitalkeriaz baliaturik
Iberdrola zen burua,
boteretsuak beti jakin du
nola xahutu dirua.
Garai batean itsasalde hau
ez zitekeen segurua,
nuklearrekin bete nahi zuten
aparta zen ingurua.**

Lezo-Gaintzurizketa-Gurutze-Altzibar (2018-04-13)



Taldea Altzibarko autobus geltokian

**Hirigunetik ez oso urrun
dakuskigu ezkutuak,
ez ezagunak izaten diren
leku eder baztertuak.
Nola liteke bertan izanik
gehientsuon sorlekuak,
ibiltariak omen zarete
baina nahiko alfertuak.**

**Jaizkibeleko hegi honetan
sumatzen dugu freskura,
handik-hemendik erreka anitz
eta nonahi ere ura.
Ur jauzi polit bide ertzean
aurrexeago estura,
bota lehorrez etxeratzea
etorri zaigu burura.**

**Ezin irentsiz euri-jasa hauek
ikusten dugu gaur lurra,
oraindik ere zenbait menditan
suma daiteke elurra.
Gure Endrikek alde z aurretik
ez digu esan gezurra,
errekaxoa igarotzean
nork pasa duen beldurra.**